

# COVID-19 PROTOKOLOA

1. bertsioa, 2020/08/24

## Euskal Herriko Iristaketa Federazioa

Julian Gaiarre etorbidea 46, behea  
48004-Bilbo  
Bizkaia  
644 664 527  
federacion@fvpatinaje.eus



# EDUKIEN AURKIBIDEA

SARRERA	3
ARAUDIA	3
SINTOMAK EZAGUTZEA	3
GOMENDIO OROKORRAK	4
NAHITAEZ BETE BEHARREKOAK	5
HIGIENE ETA PREBENTZIOKO NEURRI OROKORRAK INSTALAZIOETAN	5
ENTRENAMENDUAN HARTU BEHARREKO NEURRIAK	7
NEURRI BEREZIAK, DIZIPLINEN ARABERA	8
EKITALDIK ETA LEHIAKETAK	11
COVID KASUEN IDENTIFIKAZIOA	12



Helbidea eta harremanetarako tel.:  
Julian Gaiarre etorbidea 46, behea  
Bilbo 48004  
Bizkaia

Euskal Autonomia Erkidegoko  
Kirol Erakundeen Erregistroa  
Erregistro-data: 1996/01/30  
Erregistro-zenbakia: 56

FEDERACION VASCA DE PATINAJE  
EUSKAL HERRIKO IRRISTAKETA FEDERAZIOA

[federacion@fvpatinaje.eus](mailto:federacion@fvpatinaje.eus)

## SARRERA

Berriro kirol-jarduerak egitera itzultzeko garai hauetan, beharrezkoa da zenbait neurri eta gomendio ematea, irristaketako entrenamenduetan, tokialdaketetan eta lehiaketetan Sars-Cov-2 birusaren kutsadura-arriskua ahal beste murriztu ahal izateko.

Irristaketan, nahiko ohikoa da kirolariek elkar ukitzea zenbait diziplinatan, eta, beraz, zenbait protokolo hartzeak eta protokolo horiek betetzerakoan egokiro jarduteak aukera emango dute bai entrenamenduak eta bai lehiaketak modu seguruagoan garatzeko. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoan irristaketako kirol-jarduerak garatzeko prebentzio neurriak ezartzea eta zenbait jarduera zehaztea du helburu honako protokolo honek, kirol-ingurune seguruagoa lortuko baitugu horrela.

Protokolo honetan eskaintzen diren gomendioen bidez, entrenamenduetara itzultzeari begira erakunde ofizialek eta osasun-agintariek hartutako neurriak indartu nahi dira, kirol-zentroen araudiak sustatzearekin batera; kirol-zentroek emandako jarraibideen mende geldituko dira, dena den. Protokolo hau alda daiteke deskonfinamenduko faseen bilakaeraren arabera, eta osasun-agintarien jarraibideei jarraituko zaie beti.

Protokolo honetako aurreikuspenetatik kanpoko eremu orotan, ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretua eta EAEko Osasuneko sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Agindua eta honen aldaketak aplikatzea gomendatzen da.

## ARAUDIA

Osasuneko, kirol- eta esparru horietan eskumenak dituzten beste erakunde batzuetako agintariek argitaratutako arau eta protokoloetatik eratorritakoak dira dokumentu honetan jasotzen diren oinarriko arauak. Hauek nabarmentzen dira bereziki:

- Ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretua, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurriei buruzkoa.
- Osasuneko sailburuaren Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero.

## SINTOMAK EZAGUTZEA

- Sukarra. 37,2 °C-tik gorako tenperatura (termometro infragorriarekin hartuta)
- Eztul lehorra. Eztarriko mina edo azkura.
- Arnasa hartzeko zailtasuna. Bularreko estutasuna.
- Ubeldurak zangoetan edota eskuetan.



Helbidea eta harremanetarako tel.:  
Julian Gaiarre etorbidea 46, behea  
Bilbo 48004  
Bizkaia

Euskal Autonomia Erkidegoko  
Kirol Erakundeen Erregistroa  
Erregistro-data: 1996/01/30  
Erregistro-zenbakia: 56

FEDERACION VASCA DE PATINAJE  
EUSKAL HERRIKO IRRISTAKETA FEDERAZIOA

[federacion@fvpatinaje.eus](mailto:federacion@fvpatinaje.eus)

- Larruazaleko eritema edo urtikaria.
- Beherakoa edota goragalea.
- Gihar eta artikulazioetako mina.
- Buruko mina.
- Usaimena edota dastamena galtzea.
- Zorabioa, nahasmendua.

## GOMENDIO OROKORRAK

- Jarduera fisikoa edota kirola egiten ari diren partaide guztiei gomendatzen zaie gertutik zaintzeko beren sintomak, eta gorputz-tenperatura erregistratzeko erregulartasunez.
- Kutsatzeko arrisku handiena duten taldeei edo osasun-historia arriskutsuak dituztenei bereziki prebentzio-neurriak zorrotz betetzeko gomendioa egiten zaie.
- Pertsona guztiei gomendatzen zaie etxera itzultzean sar dezatela arropa guztia poltsa biodegradagarri batean eta itxi dezatela hermetikoki; ondoren, arropa gutxienez 60<sup>o</sup>-ra garbitzea gomendatzen da, eta gel edo lainoztagailu hidroalkoholiko biruzida batekin desinfektatzea erabilitako gainerako kirol-ekipamendu guztia.
- Kirolariei, teknikariei, arbitro eta epailei nahiz zuzendaritzako kideei gomendatzen zaie dagokien OSASUN-KONTROLA egitea, honako hauei erreparatuta:
  - Entrenamendu eta lehiaketei ekin aurretik, osasun-azterketa egitea, kirolaria, teknikaria, epaile edo arbitroa eta zuzendaritzako kidea zer egoeratan dauden jakiteko.
  - Kirol Kontseilu Goreneko lehendakariaren 2020ko maiatzaren 4ko Ebazpenean xedatutakoaren arabera egingo da azterketa (entrenamenduetara itzultzeko eta lehiaketa federatu eta profesionalei ekiteko oinarritzko jarduketa-protokoloa onartu eta argitaratu zuen ebazpen horrek).
  - Kirolariak edo kirol-erakundeko kideak sintoma edo seinale susmagarriak baditu, osasun-sistemara bideratuko da berehala, behar bezala zuzendu dezaten kontua.
- Pertsona guztiei gomendio hauek eman nahi zaizkie: garbitu ondo eskuak, ez ukitu aurpegia, begiak, sudurra, ez ukitu besteak agurtzerakoan, ez tul egiterakoan ukondoarekin estali aho-sudurrak, eta arnasa-higieneari eutsi.
- Ile-lehorgailuak edo esku-lehorgailuak ez erabiltzea gomendatzen da.
- Kirolariei ekitaldi edo lehiaketa aurretik PCR probak egitea gomendatzen da.
- Jardunaldi edo lehiaketetan ostatua hartu beharra dagoenean, BANAKAKO LOGELAK erabiltzea gomendatzen da, eta ostatu hartzen den establezimenduko protokoloetan zehaztutako neurriak hartuko dira.



Helbidea eta harremanetarako tel.:  
Julian Gaiarre etorbidea 46, behea  
Bilbo 48004  
Bizkaia

Euskal Autonomia Erkidegoko  
Kirol Erakundeen Erregistroa  
Erregistro-data: 1996/01/30  
Erregistro-zenbakia: 56

FEDERACION VASCA DE PATINAJE  
EUSKAL HERRIKO IRRISTAKETA FEDERAZIOA

[federacion@fvpatinaje.eus](mailto:federacion@fvpatinaje.eus)

- Parte-hartzaileen garraioari dagokionez, gomendio hauek eman dira:
  - Ibilgailu partikularretan, etxebizitza berean bizi diren pertsonak soilik joango dira.
  - Garraio pribatu kolektiboetan, bidaiarien artean 1,5 metroko tarte sozialari eustea gomendatzen da.
  - Ibilgailuetan doazen guztiek erabiliko dute maskara, ibilgailuan doazen bidaiari guztiak etxe berean bizi diren kasua salbuespentzat hartuta.

## NAHITAEZ BETE BEHARREKOAK

Entrenamenduetan eta lehiaketan parte hartzeak eta horietara joateak adierazten du onartu egiten direla indarreko araudian nahitaez betetzekoak diren betebeharrak guztiak:

- Osasun-araudia
- Federazio-araudiaren protokoloa

Sintomarik edo kutsadura susmorik izanez gero edo kutsatutako norbaitekin edo kutsaduraren susmopean egon daitekeen norbaitekin zuzenean harremanetan egonez gero, albo batera utziko da jarduera oro, osasun-zerbitzuetara joko da zuzenean, eta hark emandako jarraibideak zorrotz beteko dira. Kutsatuta egon daitekeen pertsona hori kide duen erakundeari ere jakinaraziko zaio.

Nahitaezkoa eta funtsezkoa da klub bakoitzean osasun-segurtasuneko arduradun bat izendatzea eta izendapen horren berri ematea dagozkion federazioei (EAEkoa eta probintziakoa); horien izenak, telefonoa eta posta elektronikoko helbidea jakinaraziko zaizkie, gaixotasunarekin lotuta agerraldirik bada horren berri eman ahal izateko (1. eranskina). Arduradun horrek aukera izan behar luke kirolari, prestatzaile, epaile eta epaimahaietako ofizial eta abarrek instalazioetan egiten dituzten sartu-irtenak kontrolatzeko, horrela horiek guztiak erregistratzeko eta, COVID-19arekin lotutako agerraldirik bada, instalazioetan izan direnen arrastoari jarraitzeko.

Euskal Herriko Irristaketa Federazioak eta klubek beren erakundeen barruan protokoloak betetzen ez diren kasuen berri eman ahal izango diete agintariei; eta bete beharrekoak bete ez dituen pertsona horri zehapena ezarri ahal izango dio Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Batzordeak; eta, horrez gain, lehiaketatik edo entrenamendutik kanpo utziko du.

## HIGIENE ETA PREBENTZIOKO NEURRI OROKORRAK INSTALAZIOETAN

Ekitaldiak, jarduerak, lehiaketak eta kirol-entrenamenduak hartzen dituzten instalazio eta lekuetan, horien titularrek eta, horiek ez daudenean, antolatzaileek ziurtatu behar dute garbiketa eta desinfekzioko neurri egokiak hartzen direla, eta arreta berezia jarriko dute erabilera komuna duten eremuetan eta gehien ukitzen diren azaleretan (hala nola ateen eskutokiak, mahaiak, altzariak, eskudelak, lurzorua, telefonoak, esekitokiak eta antzeko ezaugarriak dituzten elementuak).



Helbidea eta harremanetarako tel.:  
Julian Gaiarre etorbidea 46, behea  
Bilbo 48004  
Bizkaia

Euskal Autonomia Erkidegoko  
Kirol Erakundeen Erregistroa  
Erregistro-data: 1996/01/30  
Erregistro-zenbakia: 56

FEDERACION VASCA DE PATINAJE  
EUSKAL HERRIKO IRRISTAKETA FEDERAZIOA

[federacion@fvpatinaje.eus](mailto:federacion@fvpatinaje.eus)

Ahal dela, instalazio, entrenamendu eta lehiaketetako ekipamendua, materialak, tresnak eta erabiltzen diren bestelako elementuak pertsonalak izango dira, besterenezinak. Pertsona batek baino gehiagok erabiliko dituzten ekipamenduen kasuan, babes-materialak eskueran jartzeko ahalegina egingo da, edota maiz erabiliko dira gel hidroalkoholikoak edo desinfektatzaielak (biruzida dutenak), material horiek erabili aurretik eta ondoren.

Lehiaketak eta kirol-entrenamenduak egiteko erabiltzen diren estalitako instalazioak AIREZTATU EGINGO DIRA ALDIAN-ALDIAN, egunean behin gutxienez, eta airea berritu ahal izateko denbora emanda.

Aldagelak erabiltzea saihestuko da, ahal dela.

Eta, ahal dela, bainugelak ere saihestu egingo dira.

Horiek erabili beharra badago, bainugela eta aldagelen erabilerarako gehieneko okupazioa honako hau izango da: pertsona bat lau metro koadroko espazio bakoitzeko, laguntza behar duten pertsonen kasuan izan ezik; azken kasu horretan, laguntzailea ere sartu ahal izango da gune horietan. Kabina edo pixatoki bat baino gehiago dituzten lau metro koadrotik gorako bainugeletan, gela horren kabina eta pixatokiak % 50ekoa izango da gehieneko okupazioa, eta horiek erabiltzen direnean, pertsonen arteko segurtasuntarteari eutsi beharko zaio. Espazio horien garbiketa eta desinfekzioa indartuko da, osasungarritasuna eta higiena bermatuz beti.

Kirol-ekitaldiak, jarduerak, lehiaketak eta entrenamenduak hartzen dituzten instalazioetan, paperontziak ezarriko dira –HOBE PEDALDUNAK EDO IREKIAK BADIRA–, erabili eta botatzekoak diren musuzapi eta bestelako materialetarako; eta sarri-sarri garbituko dira lehiaketa edo ekitaldi garaian.

PILAKETAK SAIHESTEKO, beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dira, bereziki hauek kontuan hartuta:

- Ahal dela, instalazioetarako sarrerak eta irteerak desberdinak izango dira.
- Pertsonen joan-etorriak mugatu egingo dira instalazioen barruan.
- Laguntzaileen eta ikusleen mugimenduak mugatu egingo dira, eta GUNEAK ETA ERABILERAK ZEHAZTU EGINGO DIRA. Lehentasuna emango zaio parte-hartzaileen, ikusleen eta laguntzaileen zirkulazioa noranzko bakarrean ezartzeari, eta eskuinetik bideratuko da beti.
- Ekitaldi, entrenamendu edota lehiaketetatik mailakatuta irtengo da jendea. Horretarako, irteerarako gomendioak emango dira megafonia bidez, horrelakorik denean, eta nola utzi tokia eta zer ate edo ingurutatik irten azalduko da.

Entrenamenduak edota lehiaketak hartzen dituzten leku eta instalazioek sarbideetan kontrol-puntuak izan behar dituzte, desinfektatzeko eta isolatzeko materialez hornituta; eta, ahal dela, instalaziora sartzen diren pertsonen tenperatura hartzeko modua ematen duten elementu teknikoak ezarriko dira.



Helbidea eta harremanetarako tel.:

Julian Gaiarre etorbidea 46, behea

Bilbo 48004

Bizkaia

Euskal Autonomia Erkidegoko

Kirol Erakundeen Erregistroa

Erregistro-data: 1996/01/30

Erregistro-zenbakia: 56

FEDERACION VASCA DE PATINAJE  
EUSKAL HERRIKO IRRISTAKETA FEDERAZIOA

[federacion@fvpatinaje.eus](mailto:federacion@fvpatinaje.eus)

Entrenamenduak, ekitaldiak edo lehiaketak hartzen dituzten gune edo tokietan, garbiketarako jarraibideei eta jokabide-arauei buruzko informazioa argi eta zehatz emango da, toki guztietan kartelak ezarri horretarako, kutsadura arriskua ahal beste murriztu ahal izateko.

## ENTRENAMENDUAN HARTU BEHARREKO NEURRIAK

Ahal den neurrian, laguntzaileak entrenamenduetara sartzea saihestuko da. Ezinbestekoa bada, laguntzaileei instalazioan sartzen utziko zaie, baina ahalik eta denbora gutxien egongo dira barruan, horretarako prestatutako eremua gainditu gabe eta ezarritako segurtasun-neurri guztiak betez.

Talde desberdinen entrenamenduen artean instalazioko eremuak desinfektatzeko behar beste denbora utzi beharko da. Sartzeko eta entrenatzeko ORDUTEGI-TXANDAK ezarriko dira, eta, txanda bakoitza amaitu ondoren, erabilitako kirol-espazioak garbituko dira. Beste entrenamendu-talde batzuekin bat ez egiteko ahalegina egin behar da.

Entrenamendu-taldeek ahalik eta itxienak izan beharko dute; hau da, entrenamendu-talde bakoitza osatzen duten kirolariei dagokienez, ahalik eta aldaketa gutxien egotea komeni da.

Debekatuta dago elikagaiak, edariak edo antzekoak partekatzea.

Izardia kentzeko, erabili eta botatzeko papera erabiltzea gomendatzen da, betiere gainazalen batekin kontaktuan egon daitezkeen toallak saihestuz.

Oro har, EZ DA MATERIALIK PARTEKATUKO, eta, hori ezinezkoa bada, etengabe erabiltzeko higielementuak egotea bermatu beharko da, hala nola gel edo lainoztagailu hidroalkoholiko biruzidak.

Entrenamenduetara joaten diren kirolari eta entrenatzaile edo boluntario guztien erregistroa egingo da, eta tenperatura jasoko da. Ahal dela, entrenamendura iristean edo etxetik irten aurretik hartuko da tenperatura; etxean hartzen bada, entrenamendura iristean jakinaraziko da. Beste edozein sintoma edo inguruabar esanguratsu ere idatziz jasoko da.

Instalazioan termometroak daudela ziurtatu behar da, behar izanez gero, bertaratutakoen tenperatura egiaztatzeko. 37,5 °C-tik gorako tenperatura duen edozein pertsonak ezin izango du kirol-jarduera fisikorik egin, ez eta instalaziora sartu ere, eta medikuarengana joan behar duela jakinaraziko zaio.

Kirolariek maskara erabiliko dute, jarduera fisikoa egiten duten unean izan ezik.

Entrenamenduko eremura sartu aurretik eta handik irtetean, eskuak garbitu beharko dituzte, horretarako prestatutako espazioetan eskuragarri egon beharko duten hidrogel edo lainoztagailu hidroalkoholiko biruzidekin. Teknikariek, begiraleek edo entrenatzaileek pertsonen arteko segurtasun-distantzia mantendu beharko dute instalazioetan, maskara etengabe erabiltzeaz gain.



Helbidea eta harremanetarako tel.:

Julian Gaiarre etorbidea 46, behea

Bilbo 48004

Bizkaia

Euskal Autonomia Erkidegoko

Kirol Erakundeen Erregistroa

Erregistro-data: 1996/01/30

Erregistro-zenbakia: 56

**FEDERACION VASCA DE PATINAJE  
EUSKAL HERRIKO IRRISTAKETA FEDERAZIOA**

[federacion@fvpatinaje.eus](mailto:federacion@fvpatinaje.eus)

Kirolariek entrenamendura ahalik eta ekipamendu gehiena jantzita eramatea gomendatzen da, patinak izan ezik.

Eskuak gel hidroalkoholikoarekin desinfektatu beharko dituzte instalazioaren sarreran.

Kirolariak aldatu ahal izateko guneak prestatuko dira, ahal dela banakako aulkiak, eta entrenamendu bakoitzaren ondoren desinfektatuko dira. Hori egitea ezinezkoa bada, ahalik eta distantziarik handiena utziko da jarlekuetan, eta erabili ondoren desinfektatu egingo dira.

Poltsak, motxilak edo norberaren gauzak horretarako egokitutako guneetan soilik utzi ahal izango dira; zabor-poltsen antzeko poltsa itxietan gordetzea gomendatzen da.

Ekipoko nahiz banakako entrenamenduak bakarka edo taldeka egin ahal izango dira, 30 pertsonako taldeetan, aldi berean eta kontaktu fisikorik gabe. Ahal den guztietan, kirol-jarduera fisikoa egiten den bitartean, pertsonen arteko segurtasun-distantziari eutsiko zaio.

Eskua ematea, besarkatzea nahiz sudurra, ahoa edo begiak ukitzea saihestuko da.

Kirolariren batek babesen bat jartzeko laguntza behar badu, entrenatzaileak soilik lagundu ahal izango dio.

Debekatuta dago tu egitea, erabili eta botatzeko mukizapiak erabiltzea gomendatzen da.

Kartelak jarriko dira, entrenamenduetara joaten direnek jarraitu beharreko neurriekin.

Salbuespen gisa, nahi duten pertsonak maskara erabili ahal izango dute entrenamenduan edo lehiaketan.

Debekatuta dago balbuladun maskarak erabiltzea.

Maskara kirurgikoak erabiltzea gomendatzen da.

Entrenamendu-txandak bi ordukoak izango dira gehienez, eta ENTRENAMENDU LABURRAGOAK BULTZATUKO DIRA.

Jarduera hasteko unean, kirolariek, begiraleek, entrenatzaileek edo dagokien erakundeek jarduera egiteko behar den babes-materialaren kopuru nahikoa eduki behar dute (maskarak, disoluzio desinfektatzaileak, etab.).

## **NEURRI BEREZIAK, DIZIPLINEN ARABERA**

Diziplina guztietan, megafoniarako, denbora kontrolatzeko, oharrak jasotzeko eta abarretarako egokitutako eremu bat behar denean, eremu horietan dauden pertsona guztiek gutxienez 1,5 m-ko

IFK | G48196067

Emaila | [federacion@fvpatinaje.eus](mailto:federacion@fvpatinaje.eus)

Webgunea | [www.fvpatinaje.eus](http://www.fvpatinaje.eus)

Harremanetarako tel.: 644 664 527





Helbidea eta harremanetarako tel.:

Julian Gaiarre etorbidea 46, behea

Bilbo 48004

Bizkaia

Euskal Autonomia Erkidegoko

Kirol Erakundeen Erregistroa

Erregistro-data: 1996/01/30

Erregistro-zenbakia: 56

**FEDERACION VASCA DE PATINAJE  
EUSKAL HERRIKO IRRISTAKETA FEDERAZIOA**

[federacion@fvpatinaje.eus](mailto:federacion@fvpatinaje.eus)

tartea utziko dute haien artean, eta maskara jarrita izango dute uneoro. Gel hidroalkoholikoa izango dute eskuragarri, eta eremu osoa desinfektatuko da (mahaiak, aulkiak, kontsolak, ordenagailuak, etab.), baldin eta postu horiek betetzen dituzten pertsonen taldea aldatzen bada.

Kirolariek, teknikariek eta baimendutako gainerako langileek entrenatzeko pistan sartu arte erabili beharko dute maskara.

### PATIN HOCKEYA, LERROKO HOCKEYA

- Joko-pistan sartu aurretik, eskularren ahurra biruzidarekin lainoztatuko da.
- Entrenamendu bakoitzaren ondoren, joko-hesiaren eskubanda desinfektatuko da, bai eta joko-pistara sartzeko ateen itxiturak eta aulkiak ere.
- Ahal den neurrian, ez hartu puck/bola eskuekin.
- Partidu aurreko eta osteko agurrean, publikoa bakarrik agurtuko da. Jokalarien arteko agurra ez da egingo.

### PISTAKO IRRISTAKETA, LERROAN

- Gutxienez 2 metroko tartea utzi behar da irteera-gunean, erronda/serie bat egin aurretik.
- Kaskoa jarri arte eraman beharko da maskara.
- Ateak/makilak jartzen laguntzen duen edonork maiz desinfektatu beharko ditu eskuak.
- Triajea eta identifikazioa:
  - Karpa bat muntatuko da bai lehiakideei, bai laguntzaileei triajea egiteko (temperatura neurtzea eta sintomen galdetegia).

### FREESTYLE

- Gutxienez 2 metroko tartea utzi behar da irteera-gunean, erronda/serie bat egin aurretik.
- Kirolariek maskara eramango dute eta segurtasun-distantzia gordeko dute entrenamendu-gunean.
- Kirolariek segurtasun-distantzia gordeko dute eta maskara eramango dute lehiaketa-gunean, proban parte hartzeko unea iritsi arte.
- Altuera-jauzian, lehiaketa-gunera sartzeko unean ez da beharrezkoa izango maskara erabiltzea, baina lurrian seinalatutako segurtasun-distantziari eutsiko zaio uneoro.
- Konoak edo altuerako listoiak jartzen laguntzen duen edonork maiz desinfektatu beharko ditu eskuak.



Helbidea eta harremanetarako tel.:

Julian Gaiarre etorbidea 46, behea

Bilbo 48004

Bizkaia

Euskal Autonomia Erkidegoko

Kirol Erakundeen Erregistroa

Erregistro-data: 1996/01/30

Erregistro-zenbakia: 56

**FEDERACION VASCA DE PATINAJE  
EUSKAL HERRIKO IRRISTAKETA FEDERAZIOA**

**federacion@fvpatinaje.eus**

- Triajea eta identifikazioa:
  - Karpa bat muntatuko da bai lehiakideei, bai laguntzaileei triajea egiteko (temperatura neurtzea eta sintomen galdetegia).

### ROLLER FREESTYLE, SCOOTER, SKATEBOARD

- Gutxienez 2 metroko tartea utzi behar da irteera-gunean, erronda/serie bat egin aurretik.
- Kirolariak maskara eramango dute eta segurtasun-distantzia gordeko dute entrenamendu-gunean.
- Kirolariak segurtasun-distantzia gordeko dute eta maskara eramango dute lehiaketa-gunean, proban parte hartzeko unea iritsi arte.
- Triajea eta identifikazioa:
  - Karpa bat muntatuko da bai lehiakideei, bai laguntzaileei triajea egiteko (temperatura neurtzea eta sintomen galdetegia).

### ABIADURAKO IRRISTAKETA

- Parte-hartzaileen kopurua murriztuko da, eremuetara gehienez 25 pertsona sar daitezten patinatzen.
- Beroketak egiteko unean, 25 patinatzaile sartu ahal izango dira batera pista, pistari beroketa egiteko.
- Eserlekuak mugatu behar dira, patinatzaileak eserita daudenean segurtasun-distantzia gorde dezaten.
- Patinatzaileek gel hidroalkoholikoarekin garbituko dituzte eskuak agertokira joateko eskatzen zaien unean.
- Patinatzaileek gel hidroalkoholikoarekin garbituko dituzte eskuak aurkezpen-eremutik deitzen dieten unean.
- Eskularruak edo eskuetako bestelako babesak erabiliz gero, disoluzio desinfektatzaile batekin garbituko dira; esprai bidez aplikatuko da, eta aurkezpen-eremuan egongo da eskuragarri.
- Agertokian, kontrol guztiak ikusiz egingo dira, ahal den neurrian.
- Informazio-bilerak:
  - Lehiaketa-sistema azaltzeko, deialdi guztiak, irteera-lerroak eta probaren ordena online bidali behar dira.
  - Dortsalak entregatzeko, ordezkari bakoitzari dagokion zenbaki-sorta emango zaio, eta ezin izango da inoiz pertsona bat baino gehiago joan klub bakoitzeko.
  - Erreklamazioak klub bakoitzeko ordezkariaren bidez bakarrik aurkeztuko dira.
  - Egin beharreko informazio-bilerak zortzi pertsonako talde txikietan egingo dira, eta lasterketen edo proben ordenan aldaketaren bat izanez gero soilik egingo dira bilerak.
- Epailak:
  - Epailen kasuan, segurtasun-distantzia gorde behar dute beti, eta ezingo dituzte partekatu txilibitua, kronometroa, orriak eta epaitzearekin lotutako gainerako guztia.
  - Beste epaile batekin egon behar duten epaileek, segurtasun-distantzia gordetzea lortzen ez badute, maskara eraman beharko dute.
  - Megafonian dagoen epaileak ezin izango du mikrofonorik partekatu; beraz, megafoniar arduratzen den epaile bakarra egon ahal izango da. Jardunaldia amaitutakoan, megafonia desinfektatzeaz arduratuko da. Epailak horrek maskara erabili beharko du uneoro.

IFK | G48196067

Emaila | [federacion@fvpatinaje.eus](mailto:federacion@fvpatinaje.eus)

Webgunea | [www.fvpatinaje.eus](http://www.fvpatinaje.eus)

Harremanetarako tel.: 644 664 527



Helbidea eta harremanetarako tel.:  
Julian Gaiarre etorbidea 46, behea  
Bilbo 48004  
Bizkaia

Euskal Autonomia Erkidegoko  
Kirol Erakundeen Erregistroa  
Erregistro-data: 1996/01/30  
Erregistro-zenbakia: 56

FEDERACION VASCA DE PATINAJE  
EUSKAL HERRIKO IRRISTAKETA FEDERAZIOA

[federacion@fvpatinaje.eus](mailto:federacion@fvpatinaje.eus)

## IRRISTAKETA ARTISTIKOA

- Beroketa-talde bakoitzeko patinatzaile kopurua murriztu egingo da, txapelketa egiten den pistako neurrietara egokituta, eta ez dira inoiz ZORTZI baino gehiago izango. Maskara erabili beharko dute, eta pistara deitzen dituztenean kendu ahal izango dute.
- Hurrengo beroketa-taldeko patinatzaileak soilik sartu ahal izango dira pistara, baina, horretarako, aurreko taldeko patinatzaile guztiek beren jarduna amaituta izan behar dute.
- Pistan bertan, ENTRENATZAILE BAT ETA KLUB BAKOITZEKO ORDEZKARI BAT soilik egon ahal izango dira; era berean, parte-hartzaileek pistatik irten beharko dute beren jarduna amaitutakoan. Maskara erabili beharko dute.

## EKITALDIAK ETA LEHIAKETAK

Puntu honetan ezarritako neurri guztiak entrenamenduetan eta kirol bakoitzerako zehaztutako neurri espezifikoaren gehigarriak dira.

Euskal Herriko Iristaketa Federazioaren babespean Euskadin egingo den edozein ekitaldiren berri eman beharko zaio federazio horri; federazioak protokolo honetan txertatuko du, eta, beharrezkoa izanez gero, egokitu egingo du. Honako hauek jakinarazi beharko dira:

- Kirol-ekitaldiaren edo lehiaketaren deskribapena
- Datak
- Non egingo den
- Instalazioak
- Orduetegiak
- Parte-hartzaileen aurreikuspena
- Ikusleen aurreikuspena

Harremanetarako arduradun/pertsona bat zehaztuko da erakunde antolatzaile bakoitzean gai honetarako, eta ardura eskusiboa izango du ekitaldiak irauten duen bitartean.

Kirol ekitaldietan parte hartuko duten kirolarien gehienezko muga 300 lagunekoa izango da.

Trofeoak eta dominak emateko zeremoniak saihestuko dira. Halakorik egiten bada, esku hartzen duten guztiek maskarak erabili beharko dituzte, eta ez da esku-protokolorik edo saria ematen duenaren eta sarituaren arteko musurik edo besarkadarik izango.

Tenperatura kontrolatuko zaie lehiaketara joaten diren parte-hartzaile guztiei. 37,5 °C-tik gorako tenperatura duen edozein pertsona ezin izango da esparrura sartu. Esparruan sartzen den jendeari ere tenperatura kontrolatzea gomendatzen da.

Lehiaketan publikorik balego, indarreko araudian ezarritakoa beteko da, baina, oraingoz, lehiaketak jenderik gabe egitea gomendatzen da, batez ere instalazio itxien kasuan.



Helbidea eta harremanetarako tel.:  
Julian Gaiarre etorbidea 46, behea  
Bilbo 48004  
Bizkaia

Euskal Autonomia Erkidegoko  
Kirol Erakundeen Erregistroa  
Erregistro-data: 1996/01/30  
Erregistro-zenbakia: 56

FEDERACION VASCA DE PATINAJE  
EUSKAL HERRIKO IRRISTAKETA FEDERAZIOA

[federacion@fvpatinaje.eus](mailto:federacion@fvpatinaje.eus)


## COVID KASUEN IDENTIFIKAZIOA

Entrenamendu, lehiaketa edo kontzentrazio batean COVID-19 kasu baten identifikazio positiboa egiten bada, bakarka erabiltzeko eremu isolatu bat eduki beharko da, eta osasun-arloan eskumena duten agintariei jakinaraziko zaie; adingabea bada, berriz, aitari, amari, tutoreari edo izendatutako pertsonari jakinaraziko zaio. Erabileraren indibidualerako eremu horrek aireztapen egokia izan behar du, eta poltsa duen pedalezko paperontzi bat, maskara eta erabili eta botatzeko zapiak.

Entrenamendu, lehiaketa edo kontzentrazio-egoeratik kanpo pertsona bati COVID-19a diagnostikatu bazaio eta aurreko 15 egunetan entrenamendu, lehiaketa edo kontzentrazio batera joan bada, osasun-agintariei jakinaraziko die lehenik, eta, ondoren, dagokion erakunde antolatzaileari, eta lehenengoek adierazitako neurriak hartuko ditu.

Kasuei eta kontaktuei dagokienez, osasun-agintariei zehaztutakoaren arabera jokatu da. Ez dagokie antolatzaileei kontaktuen azterketa edo jarduerak eteteko balioespena egitea, baina osasun-agintariei eskatzen dieten lana erraztu behar dute, eta laguntza eskaini behar dute.

Antolatzailea edo instalazioa ahal bezain laster jarriko da harremanetan dagokion osasun-zentroarekin, lehen mailako arreta-taldeak balioespen klinikoa egin dezan eta egin beharreko jarduerak erabaki ditzan, osasun-agintariekin bat etorritik.



# PROTOCOLO COVID 19

Versión 1 24/08/2020

## Federación Vasca de Patinaje

Avenida Julian Gaiarre 46, Bajo  
48004-Bilbao  
Bizkaia  
644 664 527  
[federacion@fvpatinaje.eus](mailto:federacion@fvpatinaje.eus)



# TABLA DE CONTENIDO

INTRODUCCIÓN	4
NORMATIVA	4
CONOCER LOS SINTOMAS	4
RECOMENDACIONES GENERALES	4
DE OBLIGADO CUMPLIMIENTO	5
MEDIDAS GENERALES DE HIGIENE Y PREVENCION EN INSTALACIONES	6
MEDIDAS DURANTE EL ENTRENAMIENTO	7
MEDIDAS ESPECIFICAS POR DISCIPLINAS	8
CELEBRACION DE EVENTOS Y COMPETICIONES	11
IDENTIFICACION CASO COVID	11

# INTRODUCCIÓN

